

## ERRI - ARNASA

### IZADI - OLERKIA

Solozabal'dar Paulin'ek beste liburu bat argitaratu dauku, ERRI-ARNASA idazpuru dala.

Olerki-liburua da.

Gure Paulin'ek olerkietara jokera bizia dauka. Orregaitik, noizean bein liburu barri bat croaten dau gure liburu-dendetara saltzeko ta zabaltzeko.

Bere lenengo olerkia, izadi-olerkia zan eta izadiko edertasunak abesten zituan, batez be URRE-BITZA idazpuru dala atera eban liburuan.

Munduaren edertasuna asmetan eban olerkariak liburu orretan, baiña olerkaria izateko ez da naikoa asmapena. Olerkariak irudimena be bear dau eta, batez be egun zoragarri aretan asmau eban edertasuna besteai erakusten jakin.

Ori egin eban batez be lenengo liburuan.

\* \* \*

### GIZARTE - OLERKIA

Baiña-gero, irakurleak olerki ori txairoa zala esan eutselako edo. Paulin'ek beste bide bat artu eban: Gizarte-olerkiarena.

Ortik sortu zan, batez be, salakuntza-olerkia.

Bide labana au benetan! Olerkaria, igarle biurtzen dauana! Baiña emen sendotasun aundia bear, erriari edo erritar batzui entzun gura ez dabena entzun azoteko! Batez be egia csatea zigortuten zan aldi larri aretan.

Irudi-bidez egiten eban Paulin'ek igarle ta olerkariaren lan au. Orrelan, ulertu bear ebezanak bakarrik ulertzen ebezan bere olerkiak eta ulertzaille orreik ez ziran salatuak, salatzailleak baiño.

### BIETARA

ERRI-ARNASA'n gizarte-olerkia ta izadi-olerkia alkartuta agertzen dira.

Ori liburu onen edozein orrialdetan agertzen da.

Artu dagigun zatitxu bat:

### XABIER ETA EDURNE

*Arbola santuaren gerizpe ontatik  
agur samurra danoi biotz uretatik.*

*Egun ederra dogu, gaurkoz ospatuten,  
eta era berean bizi zainduten.*

*Gernika'ko urian biotza daukagu,  
arbola santu ori maitagarri jaku.*

*Pozaren pozez andra maiteenak  
adurrez, ikusirik alkartuta umeak.*

*Erriaren barruan maitasuna dago  
urra bera baiño askoz ederrago.*

*Egunak egunari argia dakartso  
lagunak lagunari egia dirautso.*

*Lorarik ederrera norbere umea,  
beraren sorrera da maitasun urrea.*

*Ekaitz artean, ziur, laguntzaz estutu,  
zuen maitasun garra larrosa gorritu.*

### EUSKERIA

Zabal dabil, Bizkai'ko euskerarik onena or Markiña-aldean egiten dala.

Baleiteke.

Paulin'en euskerea, beintzat, ondo garbia ta ederra da.

Ulertzeko gatxa dala be, esango dau baten batek, baiña ori diñona euskeran larregi sartu barik dago. Euskerea landu dabeneztat, Paulin'ena oso argia ta ederra da.

\* \* \*

### ITZ NEURTUZ ETA AZKEN - BARDIÑEZ

Azken-urteetan olerkariak bertso askea eurarandu dabe: Neurri barik eta azken bardin barik.

Paulin'ek be izen dau olakoa tentaldia, baiña orain barrero neurri zeatz eta azken-bardin garbietara jo dau.

Olerkiak orrelan adorea artzen dau.

Artu ba, irakurle, eta irakurri. Atsegindu zaitetz euskerearen eta olerkiaren ederrasunez.

OLAZAR'tar Martin'ek

